

Espainiako politikan eta nazioarteko kontestuan jarri du Ardanzak krisia

Estatutuaren jatorriko planteamentuetara itzultzeko eskatu dio Madrileko Gobernuari

Nazioarteko kontestuan eta Espainiak «gure lehentasun industrielen kontra» egin duen politikaren pean kokatu du Jose Antonio Ardanza lehendakariak krisi ekonomikoa. Jaurlaritzak hartu dituen neurriak «egokiak» izan direla eta bide beretik jarraituko duela esan zuen Ardanzak, eta ez zuen zehaztu 1994ko aurrekontuetan izango duen eragina.

PANTXIKE AGIRRE / GASTEIZ

Euskal Autonomi Elkarteko politika orokorrari buruzko eztabaida egin zen atzo egun osoz Legebiltzarrean. Bizi dugun krisi ekonomiko eta Estatutuaren garapenaren geldiunea izan zituen bere hitzaldiaren ardatzak Antonio Ardanza lehendakariak. Egoera «larrian» daude bere esanetan bi gaiak, eta ez zuen konpandierik aurreikusi.

Krisi ekonomikoa dela eta joan den legegintzaldian Jaurlaritzak hartutako neurriak «egokiak» izan ziren bere esanetan, eta Industria Plana eta Ekonomia eta Enplegua Suzpertzeko Akordioa nabarmendu zituen. «Indarrean dauzkagun plangintza eta egitasmoak bultzatzea izango da gure eginkizuna datozen hilabeteetan ere» iragarri zuen, «nahiz eta badakidan neurri hauek ez dituztela gure arazoak konponduko».

Nazioarteko kontestua da Ardanzaren iritziz, krisia esplikatzen duen «ikuspegi zehatzena». Europako Komunitatean beltzagoa dela oraindik egoera esan zuen eta proiektu europarra «zehazgabea» gertatu dela eta gero eta konfidantza eta sinisgarritasun gutxiago sortzen duela.

Euskal ekonomia berpiztea Espainiako politikaren pean dagoela adierazi zuen Ardanza lehendakariak, eta Madrileko Gobernuak bere arazo ekonomikoak konpontzen ez dituen bitartean «euskal instituzioen ekintzarako gaitasuna oso mugatu» egongo dela. Legegintzaldi honetan «gure lehentasun industrielen kontra» jokatu duela Madrilek esan zuen Ardanzak, eta bere gobernuak Madrilek finkatu duen «politika monetar eta fiskalaren kontrakorrantean» jardun behar izan duela. Horren adierazle Gobernuak neurri fiskalei jarritako errekurtsioak dira bere ustez. «Zehaztasun eza» leporatu zion Madrili bere politika ekonomikoan, eta bere asmoak argitzea eta neurriak lehenbailehen hartzeko eskatu zion. Gizarteak



Jose Antonio Ardanza, bere hitzaldia irakurtzeko orduan.

OLALDE

kontzientzia hartzea da Ardanzaren ustez krisiari aurre egin ahal izateko beharrezko beste faktore bat.

Egoera honek ezinbestean izango du eragina datorren urterako Jaurlaritzak prestatuko dituen aurrekontuetan. Plantillak jeltatu eta gastu korrontea kontrolatzu orainarte hartu diren neu-

riak soldatetara eta Administrazio Publikoaren Arrazionalizazioak dauden asmoetara ere zabalduko dela iragarri zuen, baina ez zuen hartuko diren neurrien zehaztasunik eman.

EAEko transferentzien blokeoa dela eta, Estatutua ez betetzea leporatu zion Madrileko Gobernuari. «Estatutua izan zen itun

politikoak lortu zuen elkar ulertzea hautsi egin da, eta herri honen normalizazio politikoa lortu ahal izateko urte inportanteak galdu dira» adierazi zuen. «Erbateko aldaketa» eskatu zion Gobernuari eta 1978ko planteamentu politikoetara itzultzeko.

Euskal Herriaren bakebideari egin zion aipamen amaieran.

Estatu elkarrizketa Europarako

P.A. / GASTEIZ

■ Euskal Autonomi Elkartek Europako prozesuan parte har dezan Jaurlaritzak egin dituen eskaerak ez dute aurrerapenik izan, Ardanzak hitzaldian nabarmendu zuenez. Europak etapa berria zabaldu diola autogobernuari, baina Estatu espainiarrak «Estatu autonomiko batean pentsatzekoa den baino traba gehiago» jartzen dituela esan zuen. Alemanian edo Belgikan nazio-

nalitate eta erregioei bidea ematen ari zaien bitartean, Espainiako Gobernuak «aurrerapausorik» ez dituela eman uste du.

Jaurlaritza Europari begira lanean hasi dela azpimarratu zuen arren, Europako Komunitateko instituzioetan parte hartzeko aspalditik eginak dituen erreibindikazioek ez dute erantzunik izan. Ministroen Kontseiluan partehartze zuzena izatea, Bruselan Eusko Jaurlaritzak ordezkartza bulego bat izatea eta

Erregioen Batzordean nazionalitate eta erregioek pisuzko partehartzea izatea dira Jaurlaritzak negoziatu nahi dituen eskerak.

Horretarako «benetako Estatu elkarrizketa bat irekitzea» eskatu zion atzo Ardanzak Madrili. Estatutuekiko elkarrizketa bideratzeko organu egokia «noiz erabiliko zain dagoen Gai Europarretarako Euskadi-Estatua Batzordea» da Ardanzaren esanetan. 1990ean onartu zuen Madrilek batzordea baina ez da osatu.

PUNTOZ PUNTO

Krisi ekonomikoaren pean

Jose Antonio Ardanza lehendakariak krisi ekonomikoaren ildotik eraiki zuen hitzaldia. Hona hemen azaldu zituen mezu nagusiak:

- **NAZIOARTEKO** inguruan krisi ekonomikoa kokatzen hasi zuen hitzaldia. «Zehaztasunik gabeko» Europaren batasunerako proiektuarekiko «zalantzak» desagertu arte Europa suspertzaile ekonomikoa izateko «itxaropena alferrikakoa» izango dela esan zuen. Espainiako inguruaz segitu zuen gero. «Kexkak» ageri eta Gobernu espainolari neurri «argiak» eta «azkar» hartzeko eskatu zion.


- **EUSKAL Autonomi Elkartera** iritsi zen ondoren eta egoera ekonomikoa «kaskarra» dela esan zuen. EAEn lehen hiru hilabetekean jardun ekonomiko orokorrak % 1,5 behera egin duela eta langabezi tasa % 23,5era ailegatu dela datu gisa emanik, 1994erako aurrikusitako susperraldia «geldotzat» hartu zuen.

- **EGITASMOAK** aipatu zituen, orain arte krisiari aurre egitearren Jaurlaritzak izandako ekimenak azaldu ondoren. Baina aurrera begira Inbertsio Estrategikorako Fondo iraigarri zuen eta 1995era arte 132.000 milioi pezetako inbertsioa egiteaz gainera 8.250 lanpostu sortuko direla informatu zuen.

- **GOGOR** jardun zuen autogobernuaz. «Larritzat» jo zuen egoera. «Estatutu legalitatea ez da bete», erantsi zuen eta Madrili «Estatu elkarrizketa» eskatzera iritsi zen, Europar oztupoak jartzeari uzteaz aparte.

- **BAKEA** aipagai izan zuen amaitzeko. «Biolentzia politikoa terrorismo hutsa bilakatu da dagoeneko gehienon ustez», esan eta Ertzaintzari sostengua berresteko aprobe-txatu zuen.

MARKOS



**OKINDEGI TA
GOZOTEGI ETXETAKOAK**

Ubarburu P. 4-5 Pabilioiak
27 Industrialdea Tel.: 45.09.66
MARTUTENE

Urdaburu Kalea, 2. B. Ijurko
Tel.: 52 95 98 LEZO

Ategorrieta Etorb., 33
Tel.: 27 48 48 DONOSTIA

E G U R • Z E R R A
B E R T A K O E G U R R A K
E R A I K U N T Z E T A R A K O

- Zutabeak
- Goiagak
- Zurrinak
- Lata
- Habeak
- Solibak

**Arozlegia
Gurteria
Lorazantza
Ixturetako gaiak**

Jesus Mari Errekondo - ZUBIETA GIPUZKOA - ☎ 36 22 37